1380/17 EBAZPENA, DONOSTIALDEA ERAKUNDE SANITARIO INTEGRATUKO ZUZENDARI GERENTEARENA, ONARTUEN ETA BAZTERTUEN BEHIN BETIKO ZERRENDA ONARTZEN DUENA, MIKROBIOLOGIAKO ZERBITZUBURU LANPOSTUA LEHIAKETA BIDEZ BETETZEKO

AURREKARIAK

Lehenengoa.- Deialdi publikoa iragarri zen, erakunde honetako Mikrobiologiako zerbitzuburu lanpostua lehiaketa bidez betetzeko, Zuzendaritza Gerentzia honen apirilaren 28ko 675/17 Ebazpenaren bidez (2017ko ekainaren 13ko 111. EHAAn eta 2017ko ekainaren 13ko 140. BOEn argitaratua), eta hori aldatu zen Zuzendaritza Gerentzia honen uztailaren 10eko 951/17 Ebazpenaren bidez (2017ko uztailaren 19ko 137. EHAAn eta 2017ko abuztuaren 14ko 193. BOEn argitaratua).

Bigarrena.- Erakunde honetako zuzendari gerentearen urriaren 3ko 1224/17 Ebazpenaren bidez iragarritako lehiaketaren onartuen eta baztertuen behin-behineko zerrenda onartu zen. Eskabideak aurkezteko epea hamar egun baliodunekoa zen, ebazpena argitaratu eta hurrengo egunetik hasita.

Hirugarrena.- 2017ko urriaren 30ean bukatu zen erreklamazioak aurkezteko epea. Ebazpenaren kontra ez da erreklamaziorik aurkeztu.

ZUZENBIDEKO OINARRIAK

Bakarra.- 675/17 Ebazpenaren 4. oinarriaren arabera, behin behineko onartuen eta baztertuen zerrenda behin betiko bihurtuko da baztertutako izangairik ez baldin badago.

Azaldutakoagatik, eta Osakidetzaren Estatutu Sozialetako 15.1.e artikuluak zuzendari gerenteoi ematen dizkigun eskumenez baliatuta (azaroaren 11ko 255/97 Dekretua, azaroaren 14ko 219. EHAAn argitaratua), eta lehiaketaren oinarriak betetzeko, honakoa

EBAZTEN DUT

Lehenengoa.- Onartuen eta baztertuen behin betiko zerrenda onartzea, erakunde honetako Mikrobiologiako zerbitzuburu lanpostua lehiaketa bidez betetzeko prozesuaren barruan. Zerrenda eranskinean jasota dago.

Bigarrena.- Ebazpen hau argitaratzea, Osakidetzako web orrian eta erakunde honetako intranetean.

Ebazpen honen kontra Osakidetzako zuzendari nagusiari zuzendutako gorako helegitea aurkeztu ahal izango da, jakinarazpena jaso eta, biharamunetik hasita, hilabeteko epean, betiere, kontuan hartuta Herri Administrazioen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 121. eta 122. artikuluak (urriaren 2ko BOE, 236 zk.).

Donostian, 2017ko azaroaren 24an

ZUZENDARI GERENTEA
P.D: Ekonomia eta Finantzako Zuzendaria
(1052/15 Ebazpena 2015eko irailaren 3koa)

Arantxa RETES SARATXAGA

Osakidetza

DONOSTIALDEA
ERAKUNDE SANITARIO INTEGRATUA
ORGANIZACIÓN SANITARIA INTEGRADA
DONOSTIALDEA

ERANSKINA

LANPOSTUA: Mikrobiologiako zerbitzuburua

BEHIN BETIKO ZERRENDA

Onartuak: Gustavo CILLA EGUILUZ

Baztertuak: Inor ez

Donostian, 2017ko azaroaren 24an

Osakidetza
ZUZENDARI GERENTEA
P:D: Ekonomia eta Finantzako Zuzendaria
(1052/15 Ebazpena 2015eko irailaren 3koa)

DONOSTIALDEA ESI
EKONOMIA ETA FINANTZAKO ZUZENDARITZA
DIRECCIÓN ECONÓMICO-FINANCIERA

Arantxa RETES SARATXAGA

EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO
OSASUN SAILA
DEPARTAMENTO DE SALUD